

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, HAUTESKUNDE KONTABILITATEEN IRIZPENARI BURUZKOA (2012-KO URRIAREN 21-EKO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK).

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak 5/1990 Legearen 149.3 artikuluari jarraiki, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzkoa, hauteskundearen kontabilitateari eta horietan jasotako sarrera eta gastuen justifikazioari buruzko irizpena egin du. Irizpena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Lanaren mamia, indarreko araudiari jarraiki, joan den 2012ko urriaren 21ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aulkia eskuratu zuten edota hauteskundeetako diru-laguntzaren aurrerakina eskatu zuten alderdi politikoen hauteskunde-kontuak egiaztatzea izan da, irizpenean jasotako hainbat alderdiri dagokienez, honako haueetan zehazten direnak: Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen 5/1990 Legean; 2012ko abuztuaren 30eko Aginduan, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena eta Barne, Justizia eta Herri Administrazio Sailburuaren 2012ko irailaren 17ko Aginduan; baita, egindako gastuen justifikazioa ere, kontularitza, merkataritza eta zerga printzipio eta arauak agindutako gutxienezko betekizunak gordetzen dituzten agirien bitartez.

HKEEren ondorioak hiru alderditan oinarritu dira:

-Lanaren zabalari mugak: Alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa egitea ez dagokio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Kontuen Epaitegiari baizik (Estatukoari). Honenbestez, HKEEk ez du aurkeztutako kontabilitatean erregistratu gabeko hauteskunde gasturik ba ote den egiaztatu, ez eta alderdi politikoen kontabilitatearen bitartez legezko debeku edo mugaketak betetzen ez dituzten diru-sarrerak bideratu ote diren ere.

-Legeria betetzea: Alderdi politiko batek hauteskundeetako kontabilitatea 19 eguneko atzerapenez aurkeztu du. Berebat, hauteskundeko kontutik 70.000 euroren ordainketa egin du, gastua eta hauteskunde prozesuarekin duen lotura euskarrutako duen fakturarik ez dagoela. Berebat, Alderdi politikoei eskatu arren Eusko Jaurlaritzak atzerapenez egin du bigarren aurrerakinaren ordainketa.

-Diru-laguntza proposamena: Hauteskunde gastuen diru-laguntza Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargura egiten da, ELHLren 151.1 artikuluari jarraiki. Gogoan izanik diru-laguntzak inola ere ezingo dituela justifikatutako gastuak gainditu eta hauek ere ezingo dutela 2012ko irailaren 17ko Aginduan ezarritako gastuen gehiengo muga baino handiagoak izan, txostenak alderdi politiko bakoitzari dagokionez honako datu hauek ematen ditu: justifikatutako gastuak, guztira 6,7 milioi eurorenak izan dira; guztira zorpetutako diru-laguntza, 5 milioi eurorena eta aurrerakin kontzeptuan guztira 4,6 milioi euro ordaindu dira; honenbestez, irizpena egin dugun datan 0,4 milioi euro daude ordaintzeko.

Gainera, informazio osagarri ugaria ematen du, hauteskunde emaitzen xehapena eta irizpenaren ondorioak eragin dituzten beste zenbait datu.

HKEEK hainbat gomendio luzatu ditu, zenbait hauteskunde gastu zorrotzago definitu eta arautzeko beharrari dagokionez, alderdi politikoek ekonomikoki eskaintza merkeena hautatuko dutela bermatuko duten sistemak ezartzearen komenigarritasunaz, aitortutako gastuen bolumenaren gainean garrantzia erlatiboa duten eragiketei dagokienez, dela banakako kopuruagatik, dela hornitzaile berean metatzeagatik; baita, hauteskunde kontabilitateen aurkezpenean agiri bidezko euskarriari dagokionez ere.

Irizpenean alderdi politikoaren hauteskunde kontabilitateak jaso dira, modu egokian homogeneizatuak.

Lehenengo aldia da HKEEK egindako Hauteskunde Kontabilitateei buruzko Irizpen bat komunikabide eta hiritarrei jakinarazten zaiena; izan ere, horri publikotasuna emateko legezko eragozpenik ez dagoela interpretatu du eta bai HKEE, bai Autonomia Erkidegoaren Hauteskunde Batzordea ere “bat datoz gardentasun printzipioarekin, hauteskunde esparruak ere jakinaren gainean izan behar duela”.